

## 29. INFORMAZIO FITXA PR BI 210. URAREN BIDEA. BARAKALDOKO URTEGIAK

### KOKALEKUA

**Udalerria**

Barakaldo

**Udalerraren kod.**

013

**Eskualdea**

Bilboaldea

**Kartografia**

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

**Orriak**

06128

06129

### FITXA TEKNIKOA

**Homologatua**

AURREHOMOLOGATUA

**Gutxi gorabeherako denbora**

Ordu 1 eta 30 minutu

**Gehieneko desnibela (m)**

110

**Luzera (km)**

4

**Zailtasuna**

Erraza

**Trazatu mota**

Biribila

**Ibilbidearen hasiera**

Regato (Barakaldo)


**Ibilbidearen amaiera**

Regato (Barakaldo)


**Interesa**

Etnografia, natura

**Ibilbidearen profila**



**Mapa/Krokisa**



### **Nola Iritsi**

Regatora BI-4743 errepidetik helduko gara, hori N-634tik hartu ondoren, Barakaldoko Retuerto auzoaren parean. Regatoko sarreran aparkatzeko zona bat dago, ezkerretara, San Roke eliza ondoko plazaren alboan.

### **Deskribapena**

Regatoko San Roke elizaren ingurutik irten eta Zubitxurantz abiatuko gara errepidetik, ia azkeneraino, eta bertan, eskuinetara irteten den hormigoizko bidea hartuko dugu. Bide horretatik gorantz joango gara, haritz handia duen bidegurutzera; han ezkerretara hartuko dugu, haritzaren ondoan irteten den bidetik. Bide horretatik jarraituko dugu bidegurutze bateraino, eta bertan, ezkerreko bidea hartuko dugu; bide horrek Urtegi Zaharrera edo Etxeberrira Urtegira eramango gaitu. Bertatik, eskuinetara hartu, Urdandegieta ingurura hurbildu (antzinako burdinola baten aztarnak dituen ingurua) eta urtegira itzuliko gara, lekuaren edertasunaz gozatu ondoren. Urtegiko zubia zeharkatu eta urtegia eskuinetik inguratzen duen bideari jarraituko diogu; hala ere, laster bide hori utzi eta eskuinetara igotzen den lurrezko bidea hartuko dugu. Errekatxo bat zeharkatu eta lubetatxo batetik igoko gara, ezkerretara dagoen bidezidorrari jarraituz. Hori bide bateraino doa eta bide horretatik jarraituko dugu ezkerretara, harik eta beste bide batera heldu arte; berori hartu eta ezkerretik jarraituko dugu. Laster, Tellitu auzoraino iristen den bide zahar eta ederra agertuko zaigu. Auzotik Regatorako auzo-bidera jaitsiko gara. Eskuinetara, Tellituko harrobiaren antzinako instalazioak ikusiko ditugu, hesiz inguratuta (inoiz ere funtzionamenduan jarri ez diren instalazioak). Errepideko bihurgune batera iristen garenean (eskuinetara zementuzko baranda duen bihurgunea), horren ondoko bidea hartu eta, eskuineko baso-bide batetik, Gorostiza urtegiaren eskuineko ertza inguratzen duen oinezkoen pasealekuaren hasierara (eskuinetara) iritsiko gara. Pasealekua hasi eta metro gutxira zubia zeharkatuko dugu, ezkerretara; horrela, urtegiaren atzealdea zeharkatu eta San Roke basilizaren arkuperaino iritsiko gara (ibilbidearen amaiera).

## **IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK**

### **Trazatua**

Ibilbidean zoru desberdinak aurkituko ditugu: Regatoko gunea espaloietatik eta errepide-zati batetik, hormigoizko bide batetik, lurrezko nahiz harrizko bideetatik eta asfaltaturiko auzo-bide batetik zeharkatuko dugu.

### **Gurpil-aulkietarako gauza**

Ez

### **Norabideko seinaleztapena**

Gaur egun, ibilbidean ez dago norabideko seinaleztapenik, baina laster jarriko dute.

### **Informazioko seinaleztapena**

San Roke plazan, Barakaldo ezagutzeko ibilbide batzuei buruzko informazioa duen panela aurkituko dugu.

## **ARGAZKIAK**

### **Tellitu auzoa**



### **Burdinola bateko lanaren adierazpena, Regatoko Interpretazio Zentroko fatxadan**





Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

### Ur-jauzitxo Urdandegietan



---

### Castaños erreka



---

### Belarrezko metak Tellitutik hurbil



Sustatzailea:

*Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea*

Kontsultorea:

*NK gestión ambiental y cultural S.L.*

Urtea:

2005

**Urtegi zaharretik hurbileko bidea.**



## BALIABIDEAK

### San Roke eliza

XIX. mende amaieran eraiki eta antzinako San Roke baseliza ordeztu zuen. Barruan erretaula nagusia dago, estilo neoklasikoa duena (Bilboko Agustindarren komentutik ekarrita), eta San Rokeren bi irudi. Horietariko bat antzinako baselizatik ekarri zen eta bestea eliza inauguratzeko berariaz egindako tailua da.



### Urkulluko haritza

Eusko Jaurlaritzak egindako Zuhaitz Berezien Katalogoan jasotako haritz kandudun hau Zubitxu edo Urkullu zonan dago. Zuhaitz zaharra eta handia da (9,9 m-ko altuera, 13,5 m-ko zabalera eta 2,9 diametroko enborra).



### Etxeberria urtegia

Dimentsio ertaineko urtegi hau Castaños errekaen ibilguan dago eta Urtegi Zaharra ere esaten diote. José de Etxeberria y Rotaechek proiektatu zuen, eta 1901ean eginda dago. 1902an urtegia Bizkaiko Labe Garaian jabetzakoa izan zen.



### Urdandegietako burdinolaren aurriak

Aurriak Etxeberria urtegiaren goiko uretan daude, Burzako eta Castaños ibaiek bat egiten duten lekuan. Dirudenez, Barakaldoko Tellitu maiorazkoarena izan zen, eta, dimentsioak aintzat hartuta, iraganean garrantzi handikoa izango zen.



---

### Tellituko baso mistoa

Haritzez, artez, gorostiz, gaztainondoak, hurritzez eta abarrez osaturiko baso hau Etxeberria urtegiaren eskuineko ertzean dago. Benetako uhartea da, aintzat hartuta ingurua pinuz eta eukalptoak beteta dagoela. Baso horretan animalia asko bizi dira, adibidez, azkonarrak, basurdeak, orkatzak, okilak, etab.



---

### Gorostizako urtegia

Joan den mendean siderurgiaren beharrianak hornitzeko eraikita egon arren, gaur egun aisialdirako eta jolasaldirako ingurua da. Eskuineko ertzean dagoen bidegorrian txirindulari eta oinezko asko ibiltzen da, eta urtegiko perkak, amuarrainak, zamoak, barboak, loinak eta abar oso erakargarriak dira arrantzaleentzat.





## EKIPAMENDUAK

### Aparkalekua

San Roke elizaren ondoan, aparkalekua dago ibilgailua utzi ahal izateko.



### Atsedenekua

Regatoko errepidearen amaieran, Ur Partzuergoaren hodiaren ondoan, harrizko mahaiak nahiz aulkiak eta iturri bat daude, Castaños ibaiaren ondoan.

### Haurren jolasak

Elizaren ondoan haurren jolas hauek daude.



## ZERBITZUAK

### Ostatuak

Barakaldotik irten barik, ostatua aurkituko dugu Mega Park-Max Center merkataritza zentroaren ondoko hoteletan. Nolanahi ere, Bilboaldean hotel eskaintza handia dago.

---

### Tabernak eta jatetxeak

Regaton tabernak eta jatetxeak daude.

---

### Regatoko Interpretazio Zentroa

Barakaldoko Historiaren eta Ingurumenaren Interpretazio Zentroa asteburuetan egoten da irekita. Bertan, ikus-entzunezko baliabideen, maketen, panelen eta abarren bidez, alderdi fisikoak, naturalak eta historikoak azaltzen dira, eta gainera, zonako bizimoduak eta ohiturak ezagutzeko aukera eskaintzen da.

---

### Garraio publikoa

Bizkaibusen A3139 lineak Regato auzoa eta Barakaldoko hirigunea lotzen ditu.

---

## OHARRAK

Ibilbide luzeagoa egin nahi dutenek Gorostizako polikiroldegian has dezakete ibilaldia, horren atzetik irteten den bidegorriari jarraituz; bidegorriak izen bereko urtegia inguratzen du eskuinetik, San Roke elizaren ingurura iritsi arte.